

balorezeo proposamena

mas|care

Maskare, 4 gazte euskaldun, ekintzaile eta proaktiboek osatzen dugun enpresa txiki bat da eta bere egoitza Ordizian kokatzen da.

Gaur egungo pandemiak ekarritako zailtasun guztiez gain gure azalean ere eragina izan du. Batez ere musukoaren derrigorrezko erabilerak azalean sortu dituen kalteak eta utziko dituen arrastoen jakitun geranez, hauei konponbide bat bilatu diogu. Ikerketa prozesu baten ostean, aurkitu diogu irtenbidea arazo honi.



mas|care

mas/care

Hau konpontzeko, alegia, maskarilak sortutako kalteak konpontzeko eta horrezgain zainketa profesional bat bermatzeko, krema, sprai-a eta aurpegi garbitzailea sortu ditugu.



Gure enpresaren ezaugarri bereizgarria, jasangarritasunarekiko dugun konzientzia da. Izugarritzko garrantzia ematen baitiogu inguremena zaintzeari eta haren sostengarritasunari. Gaur egungo zaborraren gain produkzioak eta ingurumenean dagoen gehiegizko kontaminazioak asko kezkatzen gaituelako, gure aportazio xumea egitea pentsatu dugu. Izan ere, mundu hobeago batean sinisten dugu eta hau (denen artean) aldatzea posible dela uste dugulako. Kontaminazioak ekosisteman sortzen duen kalteari, denok batera gizarte bezala, aurre egitea komenigarria izango zela uste dugu.

Gainera gure gertuko ingurunearen jasangarritasunaz kezkatzeaz gain, beraren garapenean eta balio ekonomikoan sinisten dugu; hori dela eta, bertako produktuak erosten ditugu, eta irmoki borrokatzen dugulako hauek aurrera ateratzeko eta estatu mailako merkatuan euren lekua izan dezaten. sustatzea ere beharrezkoa ikusten dugulako.



Lehen aipatu dugun baloreekin bat, naturan eta mundu hobeago batean sinisten dugu. Hori dela eta cruelty-free izaera babesten dugu, alegia, animalien eskubideak bermatzen ditugu (gure produktuekin ez dugu animalirik erabiliko; hau da, animaliak ez ditugu laborategian frogarik egingo) eta euren jatorriko produkturik ez erabiltzea erabaki dugu.

Azkenik; gure jasangarritasunarekiko kezka berriz ere kontuan izanik, gure produktu guztiak berrerabilgarriak dira, honekin zaborrak murriztea lortzen dugu eta gure produktuei bizitza berri bat ematen diegulako bi pauso jarraituz:

- 1. Gure produktuak berriz kargatzeko aukera emanaz.**
- 2. Sortzen diren hondakinak, produktu berriak ekoizteko baliagarriak izango dira.**

Hau da Maskare eta hau da gure proposamena. Espero dugu gure produktu zein sozietatearekiko interesa piztu izana.

Gure produktu berrerabilgarriak:



Hidratatzeko kremaren karga



**crueltyfree
andvegan**



Aurpegi garbitzailearen karga

mas|care